

# BAKETIK GERRARA, ITZULPENA MEDIO



Nagore Irazustabarrena

Uranga

@irazustabarrena

Etiopia, 1889. Tigray eta Amhara eskualdeak bereganatu ondoren, Menelik II.a Etiopiako enperadore izendatu zuten. Berehala neurri berritzaileak hartu zituen: esklabotza galarazi, derrigorrezko hezkuntza ezarri, burdinbidea erakitzen hasi... Eta ez zuen ahaztu konkistetan Italiako Erresumaren laguntza izan zuela. Italiarrei Itsaso Gorriko kostaldea eman zien eta, hala, Eritrea izan zen Afrikako lehen kolonia italiarra. Gainera, 1889ko maiatzaren 2an enperadoreak eta Pietro Antonelli kondeak, Umberto I.a erregea ordezkatzuz, adiskidetasun eta merkataritza libreko ituna sinatu zuten Wuchale hirian.

Itunaren lehen artikulua arabera, "Italiako erregearen eta Etiopiako erregearen artean bakea eta adiskidetasuna egongo da, baita bien oinordeko, ondorengo eta mendeko guztien artean ere". 17. artikulua, aldiz, honela zioen amharic hizkuntzan idatzitako testuan: "Etiopiako erregeak Italiako erregearen gobernua erabil dezake beste botere eta gobernuekiko harremanetan". Baina, italierazko itzulpenean, *dezake* hura *behar du* bihurtu zuten eta horrek praktikan Etiopia italiarren protektoratu izatea zekarren.

Menelikek "hutsegitea" salatu zuen, baina Umberto I.ak, entzungor egiteaz gain, tropak mobilizatu zituen Etiopiako mugan. Eta bake itun hark, azkenean, gerra



Etiopiako enperadore Menelik II.a (1844-1913) lehoi ilez egindako koroa buruan eta erriflea eskuetan, herrialdeko buru militarra ere bazela azpimarratzeko.

ekarri zuen. Gatazka 1894an piztu zen eta 1896an amaitu, etiopiarrek Aduako gudua irabazi zutenean. Gerora, Mussoliniren Italia Etiopiaren jabe izango zen 1935etik 1941era, baina 1913an hil zen arte, Menelik II.a Etiopiako tronuan egon zen.

Aldatu zena tronua bera izan zen. Teknologia berrien zale, Menelikek jakin

zuenen AEBetan exekuzio modu berri bat, aulki elektrikoa, asmatu zutela, hiru enkargatu zituen. Baina berehala konturatu zen elektrizitaterik ezean tramankuluak ez zuela inor hiltzen eta bererrerabiltzearen alde egin zuen: handik aurrera, aulki elektriko horietako bat erabili zuen tronua gisa. ■



APPLE/EMI

## Abbey Road-eko bosgarren *beatle*-a

The Beatles taldearen *Abbey Road* diskoko azalerako Iain Macmillanek egindako argazki ezagunean, John Lennon atzean, pertsona bat ageri da laukoteari begira. Paul Cole turista estatubatuarra zen, eta 1969ko abuztuaren 8ko goiz hartan erabaki zuen ez zuela emaztearekin beste museo bat ikustera joan nahi eta Londresko kaleetan ibiliko zela. Zebra-bide batean

lau gizon ikusi zituen antzara pausoan eta txoro koadrila bat zela pentsatu zuen. Emazteak pianoa jotzen zuen ezkontzetan eta, handik hilabete batzuetara, The Beatlesen abesti bat jotzeko eskatu zioten. Hura ikasteko diskoa erosi zuen, eta museotik ihesi ibili zen senarrak hantxe ikusi zuen bere burua, museo pieza bihurtuko zen argazkian betiketua. ■